



## I. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

#### Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

#### Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

**Erabakia, GUFÉ-ren Egitura Organikoaren Araudia aldatzeko, Bulego Teknikoaren Arloari dagokionez, 32. artikulua eta xedapen konkordanteak.**

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2025eko abenduaren 3an eginiko ohiko bileran (4/25 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«*Lehenengoa*: Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFÉ) Egitura Organikoaren Araudiaren aldaketa xedatzea, Bulego Teknikoaren Arloa deritzonari dagokionez (32. artikulua eta xedapen konkordanteak), honi erantsitako dokumentuan adierazitako irismenarekin eta ondorioekin.

*Bigarrena*: Agindua ematea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta GUFÉren iragarki-taulan zein webgunean argitaratzeko.»

Bilbon, 2025eko abenduren 5ean. — GUFÉ-ren gerentea, David Latxaga Ugartemendia

**ERANSKINA**

Aldatu egiten da III. tituluan, «zerbitzuen egitura eta misioa», II. kapitulua, «Geren-tziaren misioa», eta osorik kentzen da bigarren atala, «Bulego Teknikoaren Arloa», zeina 32. artikuluan baitago. Hala ere, aldatu gabe mantentzen dira gainerako atalak, eta gor-de egiten dira hurrengo ondoz ondoko ordinalak egungo artikuluen zenbakien arabera.

Izan ere, IV. kapituluan, «Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzaren misioa», lehenengo atalak, «Giza Baliabideen Zuzendariordetzaren misioa», orain transkribatuko diren bi arloak txertatzen ditu, in fine, hurrenez hurren dagozkien artikuluen sistematika eta ordi-nalen arabera; hona hemen:

**«LAUGARREN ATALA****PLANGINTZA, ANTOLAMENDU ETA KUDEAKETA ARLOA****47. artikulua**

Arloaren misioa da erakundearen azpiegiturak, ekipamenduak, ondasunak eta baliabideak planifikatu, kudeatu eta gidatzea, eman behar duen zerbitzurako egokiak diren baliabideak izan ditzan.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) Erakundeari asistentzia-ekintzarako beharrezkoak eta egokiak diren higiezinak hornitzea.
- b) Azterlan eta proiektu arkitektonikoak egin eta idaztea.
- c) Obrak gidatzea, eraikitzea eta bideragarritasuna aztertzea.
- d) Eraikuntzaren arloko segurtasun- eta osasun-planak egitea.
- e) Kalitatea kontrolatzea eta baliabideak optimizatzea.
- f) Ondarea kudeatzea.
- g) Jasangarritasuna eta energia-efizientzia kudeatzea.
- h) IKTbak inplementatu eta kudeatzea.
- i) Proposamen eta txosten teknikoak, balorazioak eta peritu-txostenak egitea.
- j) Agindu dakiokkeen guztia.

**BOSGARREN ATALA****OBRA ETA ZERBITZU ARLOA****48. artikulua**

Arloaren misioa da erakundearen higiezin, ondasun eta baliabideen ohiko manten-tze-lanak egitea, asistentzia-jarduketari behar bezala erantzun diezaioten.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) Erakundearen higiezinaren mantentze-lan orokorrak egitea.
- b) Neurketak, balorazioak, tasazioak, lan-planak eta antzeko beste lan batzuk egitea.
- c) Instalazioen jarraipena, kontrola eta mantentze-lanak egitea.
- d) Makineria eta tresneria egiaztatu eta kontrolatzea.
- e) Obra txikiak diseinatu, planifikatu, gidatu eta egikaritzea.
- f) Zehaztapen teknikoen agiriak idaztea.
- g) Txostenak eta proposamenak egitea.
- h) Agindu dakiokkeen guztia».

Hortik ondorioztatzen da, berebat, Lehenengo Atalean, «Zerbitzu Zentralak», 27. artikulua aldatu beharra dagoela; izan ere, 1.3 Bulego Teknikoa zenbakia ezabatu behar da,



eta 3.4 eta 3.5 apartatuak sartu, aurretik aipatutako arlo horien aipamena berridatzirik. Hau da:

**«27. artikulua: [...]**

3.4. Plangintza, Antolamendu eta Kudeaketa Arloa.

3.5. Obra eta Zerbitzu Arloa».

Azkenik, Bigarren Xedapen Iragankorrak.—Bulego Teknikoa, izen berria hartuko du: «Plangintza, Antolamendu eta Kudeaketa Arloa eta Obra eta Zerbitzu Arloa». Xedapenaren testua, berriz, hau izango da:

«Funtzionalki arlo horiei adskribatuko zaizkio, berezkoak dituzten eginkizun eta eskumenei dagokienez, mantentze-lanei loturiko lanpostu guztiak, zeinahi zentro eta zerbitzutakoak direla, eta halakoak arlo horien mende egongo dira funtzionalki, hargatik eragotzi gabe kasuan kasuko zuzendaritzei dagokien mendekotasun organikoa».